


# PR-Gi 2009

## Alotza bidea

**8,7 Km / 2 h 45 min**

**NATURA PARKEETAKO IBILBIDE SAREA**

Gipuzkoako Natura Parke bakoitzak bere ibilbide sarea du. Homologatutako eta ondo seinaleztatutako bide hauen bitartez babesgune bakoitzeko intereseko puntu nagusietara gerturatzeko aukera eskaintzen da. Modu horretan natura baliabideen inguruan ezagutza eta errespetua sustatuz. Gipuzkoako Natura Parke ezberdinak, berriz, DSS2016 GRSAREAren bitartez saretuak daude.

**RED DE SENDEROS DE LOS PARQUES NATURALES**

Cada Parque Natural de Gipuzkoa alberga su propia red de senderos. A través de estos senderos, homologados y bien balizados, se ofrece la oportunidad de aproximarse a los puntos de interés de cada zona protegida. Promoviendo, de este modo, el conocimiento y el respeto por los recursos naturales. Los distintos Parque Naturales de Gipuzkoa, en cambio, están entretejidos a través de la DSS2016 GRSAREA.




# PR-Gi 2009

## Alotza bidea

Igaratzatik Pikuetara bitarteko ibilbide honek Aralarko gunerik berezienetako bat zeharkatzen du, Alotzako goi-lautada, hain zuzen. 1.200 m-ko altueran, udan ardi, behi eta behorrak nagusitzen dira hemen. Neguan, aldiz, elurra eta isiltasuna. Sinbologia handiko eremu hau haitzek eta larreek marrazten dute, eta paisaia zinez berezia sortzen dute. Milaka urtetan abeltzain eta artzainen lurraldea, bi zutarrik mugatua dago: Irazustakoa mendebaldean eta Saltarrikoa ekialdean.

El recorrido entre Igaratza y Pikueta atraviesa uno de los lugares más especiales de Aralar, el altiplano de Alotza. A 1.200m de altitud, son las ovejas, vacas y caballos los que se adueñan de estas tierras en verano. Por el contrario, en invierno son la nieve y el silencio los que reinan. Este espacio cargado de gran simbología se dibuja entre roquedos y prados formando un paisaje tremendamente especial. Tierra de ganaderos y pastores durante miles de años está delimitado por dos menhires, el de Irazusta al Oeste y el de Saltarri al Este.

### Interes puntuak | Puntos de interés



PAGABE INGURUKO LAPIAZA: Pagabe leku izenaren inguruan hainbat eraikuntza eta monumentu daude: bordak, elurzuloa, tumuluak edota aldi baterako zen artzainen pilotalekua kokatzen zen gunea. Hala ere, inguru horretako ezaugarri nagusietako bat bertako lapiaza da. Lapiazak forma karstikoen multzoak dira, gailur zorrotzez bereizitako ildaska sakonez eta zulo irregularrez osatua. Mota askotarikoak aurkitu daitezke ingurunearen arabera.

LAPIAZ EN LOS ALREDEDORES DE PAGABE: Bajo el nombre de sitio Pagabe existen diversas construcciones y monumentos: bordas, neveros, túmulos y los lugares donde se situaban los "pilotalekus" de los pastores. Aun así, una de las características más importantes de la zona es su lapiaz. Los lapiaces son agrupaciones de forma kárstica, formados por cimas afiladas separadas por profundos surcos y agujeros irregulares. Existen de muchos tipos dependiendo de la zona.



SALTARRI ZUTARRIA: Aralarko Alotzako haranean dagoen zutarri bat da. 3 metrotik gorako luzera eta 0,6 metroko zabalera ditu. Artzainek, bi hankak elkartuta, ea nork egiten zuen jauzi luzeena egiten zuten apustu eta, hortik omen datorkio izena. Harri hau hona nola iritsi zen azaltzeko kondaira pare bat daude baina, bietan jentilek zerbait suntsitu nahi dute: lehenengoan Aralarko San Migel eta, bestean Besain eta Itsasondo.

MONOLITO SALTARRI: Es un menhir situado en el valle de Alotza de Aralar. Tiene una longitud superior a los 3 metros y una anchura de 0,6 metros. Los pastores apostaban a ver quién era capaz de realizar el salto más grande con los dos pies juntos, y de ahí debe provenir el nombre (harri=piedra). Para explicar cómo llegó está piedra aquí existen un par de leyendas y en ambas unos gentiles tratan de destruir algo: en el primer caso San Miguel de Aralar y en el segundo Besain e Itsasondo.




MANDABIDEKO PANORAMIKA: Aralarko isurialde eta garaiera honetan zehar ez dago ikuspegia oztopatzen duen inolako elementurik eta, horrek, panoramika ederrak eskaintzen ditu: inguruan dauden bordetatik (Urrustiarren, Goroskintxu edo Kobaurre) edo mendietatik (Ausa Gaztelu edo Gañeta) hasita, parez pare dagoen Goierriko eskualderaino. Horri guztiari gehitu behar zaio ibilbidea mandabide batetik egiten dela, modu horretako azpiegiturek duten balio kulturalarekin.

PANORÁMICA DE MANDABIDE: Desde esta vertiente y altura no hay ningún elemento que obstaculice las vistas, y eso proporciona unas panorámicas espectaculares: desde las bordas (Urrustiarren, Goroskintxu o Kobaurre) o los montes (Ausa Gaztelu o Gañeta) de los alrededores, hasta la comarca del Goierri que se halla enfrente. A todo ello hay que sumar que el recorrido transita por un camino de herradura (mandabide), con el valor cultural que tienen ese tipo de infraestructuras.




MANDABIDEAN BEHERA: Garai batean, horrelako bideak ziren urrun eta sarrera zaila zuten lekuetara iristen laguntzen zutenak. Orokorrean zalditeriak igarotzeko moduko basabideak ziren, hau da, ez zeuden prestatuak gurdiz pasatzeko. Baina, hau ez da aurki dezakegun bide mota bakarra, beste asko ere badaude: errege bideak, galtzadak, burdibideak, zor-bideak, andabideak, bidezidorrak edo abelbideak.

BAJANDO POR MANDABIDE: Este tipo de caminos eran, en una época, los que permitían llegar a lugares lejanos y de difícil acceso. En general eran senderos que permitían el paso de caballerizas, esto es, no estaban preparados para el paso con carros. Pero, este no es único tipo de camino que se puede encontrar, existen muchos otros: caminos reales, calzadas, caminos de herradura, caminos de servidumbre, andabides, senderos o cañadas.

### MIDE

| Ingurunea<br>Medio | Ibilbidea<br>Itinerario | Desplazamendua<br>Desplazamiento | Ahalegina<br>Esfuerzo | MIDE ordutegia<br>Horario MIDE |
|---|---|---|---|---|
| 3 | 2 | 3 | 3 | 2 h 45 min |
| **Hainbat arrisku-faktore daude**<br>Hay varios factores de riesgo | **Jarraipena adierazten duten bideak edo seinaleztapena**<br>Sendas o señalización que indica la continuidad | **Bide mailakatua edo zoru irregularra**<br>Marcha por sendas escalonadas o terrenos irregulares | **3 eta 6 ordu arteko ibilaldi jarraia**<br>De 3 a 6 horas de marcha efectiva | (( 112 ))<br>SOS DEIAK |

+ info MIDE
www.mide.montanasegura.com

### Bide-markak
Señalización

| Ibilbidearen jarraipena | Norabide aldaketa | Norabide okerra |
|---|---|---|
| Continuidad de sendero | Cambio de dirección | Dirección errónea |

### + INFO

**Praktika onen dekalogoa**
Decálogo de buenas prácticas

www.gipuzkoanatura.eus
**Trackak eskuragarri**
Tracks disponibles

### Jarraitzeko arauak | Recomendaciones a tener en cuenta

**Txakurrak beti lotuta eraman.**
Los perros deberán ir atados.

**Saiatu mendira bakarrik ez joaten.**
Intenta no ir nunca solo al monte.

**Abeltzaintza estentsiboko eremu batean zaude. Bidean aurkitzen dituzun langak, txabolen ateak eta abar ez utzi zabalik.**
Te encuentras en una zona de uso ganadero extensivo. Cierra las barreras, puertas de cabaña, etc. que te encuentres por el campo.

**Ez ezazu zaborrik lurperatu edo bota.**
No abandones ni entierres la basura.

**Ez egin surik eta ez bota piztutako zigarrorik.**
No hagas fuego ni abandones cigarrillos encendidos.

**Animaliak larratzen**
Animales pastando

** Gipuzkoako Mendien urriaren 20ko 7/2006 FORU ARAUA.*

### Legenda
Leyenda

**Ibilbide hasiera**
Inicio de sendero

**Ikuspegi panoramikoa**
Vista panorámica

**Monolitoa**
Monolitos


arazi
Gipuzkoako Foru Aldundia
Diputación Foral de Gipuzkoa
Gipuzkoako Mendizale Federazioa